



**Arartekoaren 2022R-1276-22 Ebazpena, 2022ko abenduaren 7koa. Horren bidez, Abanto Zierbenako udalari gomendatzen zaio GRAPO taldeko kidea omentzen duen monolitoa kentzeko. Monolito hori udalerriko Las Carreras auzoko Trinitate plazaren ondoan dago.**

### Aurrekariak

1. Erakunde honetan COVITE, Terrorismoaren Biktimen Kolektiboak, aurkeztutako kexa bat jaso zen. Kexa horren bidez elkarte horrek Arartekoaren esku-hartzea eskatzen zuen, bidali zituzten argazki batzuen arabera Abanto Zierbena udalerrian dagoen GRAPO talde terroristako kide baten omenezko monolito bat kentzeko eskatuz.
2. Kexa aurkeztu zuen elkarteak adierazten duenez udalerriko horretako Las Carreras auzoko Trinitate plazan plaka bat dago GRAPO taldeko kide bati eskainitako monolito batean. COVITEk adierazten duenaren arabera terrorismo-delituengatik, ebasketengatik, lapurretengatik eta osatzeko asteak behar izan zituzten zauriak eraginez bi polizia nazional eraso egiteagatik kondenatu zuten GRAPOko kide hori. Elkarte kexagileak gaineratzen zuen, halaber, aipatutako kidea espetxean hil zela bronkoneumoniarekin, 97 egunez gose-greban egon ondoren. Bere idazkia amaitzeko COVITEk adierazten zuen pertsona horrek, hil zenean, hainbat hilketa- eta lapurreta-delitu zituela epaitu gabe.
3. Amaitzeko kexa aurkeztu zuen elkarteak adierazten zuen Abanto Zierbenako Las Carreras auzoko Trinitate plazan duen monolitoan urtero egiten zaiola omenaldia eta 2022ko maiatzean pertsona horrek aipatu den urteroko omenaldia jaso zuela bere heriotzaren 41. urteurrenean.
4. Kexa kontuan hartuta eta hori igorri duen elkarteak bidalitako dokumentazioarekin batera aztertuta, Ararteko honek gaiari buruzko informazioa eskatu zion herriko udalari, hain zuzen ere **Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen** 4.b) artikuluari dagokionez; artikulua horrek biktimen duintasunerako eskubidea arautzen du eta ezartzen du EAEko botere publikoek jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko jardungo dutela, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak direnean, terrorismoa goستن dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak.
5. Abanto Zierbenako Udalak jarduneko alkatearen idazki baten bidez erantzun zuen, besteak beste honako alderdi hauek adieraziz. Alde batetik adierazten du Udalak ez duela inola ere monolito hori jarri, eta ez duela pertsona horri





dagokionez inolako omenaldirik egiten, antolatzen edo babesten. Halaber, jakinarazten du monolito hori ez dagoela udalerrri horretako Las Carreras auzoko Trinitate Plazan, baizik eta horren ondoko lorategi-parterre batean, urbanizazio pribatu baten mugakide. Gaineratzen duenez, dirudienez partikularrek instalatu zuten monolito hori duela urte asko eta udal-artxiboak kontsultatu ondoren ezin izan dute aurkitu orduan horretarako baimenik eskatu zela edo Udalak baimenik eman zuela egiaztatzen duen dokumenturik edo aurrekaririk.

### Gogoetak

1. Abanto Zierbenako Udalak igorri duen informazioaren arabera, GRAPO taldeko kidearen omenezko monolitoa leku publiko batean dago eta Udalean ez dago jasota udalari instalatzeko baimena eskatu zitzaiola edo udalak horretarako baimena eman zuela adierazten duen artxiborik.
2. Pertsona hori, partikularren omenaldi bat jasotzen du urtero monolito horretan. Monolito horrek plaka bat du, bere aurpegia, izen-abizenak, ezizena eta heriotza-data jasotzen dituena, *"Herriaren Uргуилоа-Viento de Libertad"* testuarekin eta lauburu baten ondoan euskarazko eta gaztelaniazko legenda honekin *"Presoen eskubideak eta duintasuna defendatuz gose greban hilda-Muerto en huelga de hambre defendiendo los derechos y la dignidad de los presos"*
3. Aipatu GRAPOko kidea 1981ean hil zen bronkoneumonia baten ondorioz, Herrera de la Manchako espetxean preso egon eta 97 eguneko gose-greba baten ondoren. Gose-greba horretan GRAPOko presoak elkartzea eta preso guztien espetxe-baldintzak hobetzea aldarrikatzen zuen. 37 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten GRAPOko kide izateagatik eta zaurituak eragin zituzten ebasketengatik eta lapurretengatik. Eraiketa-delitu bat ere egotzi zitzaion, baina ez zuten epaitu. Nolanahi ere, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 EAeko Legea aplikatzearen ondorioetarako, zalantzarik gabe GRAPOkoa (Grupos de Resistencia Antifascista Primero de Octubre) izan da, hildako 80 biktime baina gehiagoren erantzukizuna izan zuen talde terrorista, eta, beraz, talde terrorista horretako kidea izan zen.
4. **Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 4.b) artikulua** b) artikulua, biktimen duintasunari buruzkoak, honako hau dio: *"Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek biktimak haien eskubideak errespetatuta tratatu ditzaten zainduko dute. Horretarako: (...) b) Neurri egokiak hartuko dituzte biktimen eta haien familiakoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko, eta, bereziki, jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa goresten dutenak edo terroristei*





*omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak, eta zehazki aurka egingo diete ezaugarri horiek dituzten pintaketei eta kartelei, eta, hala dagokionean, arau-hauste penala ekar dezaketen ekitaldiak ikertuko dituzte, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskubide horren defentsarako, herri-akzioa baliatzeko aukera zabalik utzita.”*

Abanto Zierbenako Udalak bere erantzun-idazkian adierazten duen arren ez duela inola ere monolito hori instalatu eta ez dituela pertsona hori omenduz egiten diren ekitaldiak antolatu, babestu eta lagundu, bere udalerrian toki publiko batean omentzeko monolito hori egoteak, Arartekoaren ustez, *Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 4.b)* artikulua urratzen du, eta, berez, terrorismoaren biktimak, oro har, eta bereziki GRAPO taldearenak iraintzen eta umiliatzen ditu, bai eta gizarte osoa ere.

Beste alde batetik, aipatutako 4.b) artikulua *“jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa goresten dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak”* prebenitzera behartzen ditu euskal botere publikoak, eta, ondorioz, Udalak pertsona horri urtero egiten zaion omenaldian parte hartzen ez badu ere, monolitoa egoteak toki horretan bertan egitea ahalbidetzen eta errazten du.

5. Terrorismoagatik kondenatutako pertsonen omenezko monolitoei dagokionez, Ararteko honek Eusko Legebiltzarrari 2020. urtean egindako Urteko Txostenean ETako kide batzuen izen-abizenak eta heriotza-data jasotzen dituzten monolitoak egoteari buruzko bere jarrera adierazi zuen. Arartekoaren ustez monolito horiek ETako kideei egiten zaizkien omenaldiak dira eta horregatik biktimen duintasunari erasotzen diote, *Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 4.b)* artikulua ezarrita dagoena, izan ere, ez delako udalerriko bizilagun horien beste merezimendu publikorik ezagutzen, ETako kide izatetik aparte leku publiko batean oroimenezko monolitoa merezitzea eragiten duenik. Irizpide hori bera aplikatuko litzaioke aztergai dugun kasuari, GRAPO erakunde terroristako kide baten oroimenezko monolitoa egoteari dagokionez.
6. Gai honi dagokionez gogoratu behar da erakunde honek 2009an ere luze eta zabal jorratu zuela gai hori **Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta txosten berezian**. Txosten horretan duela hamarkada bat baino gehiago adierazi genuen bezala *Eusko Legebiltzarrak 2007ko urriaren 5 eta 17an egindako osoko bilkuran ebazpen batzuk onetsi zituen terrorismoaren biktimen gainean hartutako erabakiak betetzeari dagokionez. Zehatzago, hamaikagarren ebazpenak ondoko hauxe adierazten du: “Eusko Legebiltzarrak udalei eskatzen die areagotu ditzatela gure herrietako kale eta plazetatik*





*terrorismoaren biktimak iraintzen eta umiliatzen dituzten pintadak eta kartelak desagerrarazteko ahaleginak; horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskatu ahal izango dute. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2005eko otsailaren 17ko erabakiaren 2ñ puntua betearazteko; puntu horretan toki erakundeei zuzendutako diru laguntzak aurreikusten dira, pintadak, kartelak eta abar kentzeko lanari aurre egiteko orduan.”*

Beraz, oraindik ere Euskadiko herrietan biktimen duintasunaren aurka egiten duten pintadak, kartelak eta monolitoak daude eta Arartekoa kezkatuta dago, biktimen eskubide oinarrikoenen aurka doalako, biktimentzat biktimizazio bikoitza delako eta mina eragiten dietelako biktima horiei eta euren senideei, eta Euskadiko bizikidetza hautsiz gizarte moduan iraganeko indarkeria-garaietara garamatzalako.

Horregatik guztiagatik erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11b) artikuluan agindutakoarekin bat etorritik, Abanto Zierbenako Udalarik honako hau aurkezten zaio:

### **GOMENDIOA**

Azaldutakoaren arabera, Abanto Zierbenako Udalak beharrezko izapideak egin ditzala GRAPO taldeko kidea omentzen duen monolitoa kentzeko. Monolito hori bere udalerriko Las Carreras auzoko Trinitate plazaren ondoan dago.

